

**AINGERU IRIGARAY ZENAREN  
OROITZAPENA, MENDEURRENEZ**

**Juan San Martin**



Sorreraz Bidasoarra genuen Aingeru Irigaray doktore eta euskaltzale zintzoa. Bidasoako Beran jaioa bai zen 1899. urteko martxoaren 1ean.

Bidasoako seme genuen aldetik, uste dut ongi merezia duela bere gizontasun eta lanen oroitzapena «Luis de Urantz» Kultur Taldearen *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkari* honetan argitaratzea.

Bere lanak kontutan harturik, Euskaltzaindiak 1929an izendatu zuen urgazle eta 1941ean euskaltzain oso. Horregatik hain zuzen, Euskaltzaindiak bi nafar egile eta eragile zirenei, Etxarri-Aranatzen 1999ko ekainaren 24 eta 25ean, beraien mendeurreneko omenaldi ospakuntza eskaini zioten: Aingeru Irigaray zenari bere lan ugari bezain sako-

negatik, eta Victoriano Huizi zenari duela ehun urte *Gramática Bascongada* argitaratu zuelako.

Aingeru Irigaray zenak Barcelona, Paris eta Alemaniako Friburgon egin zituen medikuntza ikastaroak. Ikastaroetan ere inoiz ez zuen utzi euskaltzaletasun kezka, aldi berean inguruko ikaslekidetara zituenei kezka bera txertatuz.

Bere ekintzeri buruzko aipamenez hastean, lehenik, gogoangarriak iruditzen zaizkit Euskaltzaindiaren batzarrean bere hiltzerikoa adieraztean Jose Mari Sastrutegi jaunak oroitzapenez agertu zituen iritzak, ondotik *Euskera* agerkariaren XXIX (1984) 419-422 orrialdeetan jasorik datozenak. Hara hemen berari buruzko zati hautatu batzuk:

«Egurretik zetorkion ezpalari euskaltzaletasunaren indarra. Hain zuzen ere, oso aipatua izan zen mende honen lehen erdi aldian, Pablo Fermin Irigaray Goizueta (1869-1949), sendagilea, Iruñeko eritegietan. Ez zen apalagoa, bestalde, honen euskararenganako amodioa eta «Larreko» izenordearekin idatzi ohi zuen euskaraz. Aita honengandik jaso zuen Aingeruk euskaltzaletasunaren zuzia eta

pizturik iraurarazi dio azken ordura arte. Aingeruk bilduko zituen gero haren lanak eta argitaratu».

«Galera Nafarroarentzat da, batez ere, nabarmen. Bere kezka eta lan guziek Naparroara zuten beti ixurkia, Euskal Herri osora irekiak baziren ere bere bela-riak».

«Seme alabei euskara erakutsi zien une oso larrietan, eta zintzotasun honek eraso eta oztopo larriak sortu zizkion. Iruñean zuelarik bere ogibidea eta bizitoki atsegina, jauntxo zitelen bekaizkeriak azpijorra eginik, Donostiara joan behar izan zuen, eta hiri bion arteko sokamuturraren dantzan iragan zuen, geroztik, bere bizia».

«Lehen aldiz ikusi nuen egunean *Egan* aldizkariaren zenbaki bat eman zidan eskura. Handik denbora batera, elkarekin gertatu ginen haur euskaldunen sari banaketako lanean. Herriz-herri joaten ginen Diputazioaren izenean opari txiki batzu banatzen. Bere kezka nagusia herri bakoitzeko euskararen egoera aztertzea zela, esango nuke. Zenbait herritako agintari eta maisuen ergelkeriek haserre bizian jartzne zuten, eta esaldi bizi batzurekin gaitzesten zituen berak. Behin baino gehiagotan guardia zibilak gure zai aurkitzen genituen herri sarreran. Lan ona izan zen hura euskarari buruz sarturik zegoen beldurra kentzen joateko. Haurren bidez lasaitu ziren guraso asko. 1956.etik aurrera, hamar bat urtez burutu genuen ekintza hau».

«Euskal aldizkari baten beharra bazela ikusi zen gero, eta *Principe de Viana* euskalduna bidaltzen genuen Nafarroako zazpi mila sukaldetara. Han genuen bilera guzitan Aingeru eta gutxitan huts egiten zuen Apat-Echebarneren izkribuak. Oso giro ona zegoen lankide guzision artean. Gogo biziz itxaroten genuen hilabetero geure ametsen umetxo apala».

«*Diario de Navarra*-k argitaratzen zuen euskal orria izan da Aingeruren bihotzeko beste kutuna. Garai batez, multzo batek bultzatzen genuen, baina azken urteetan ia bakarrik ari zen nolabaiteko jarraipena ematen. Eta Apat-Echebarne adiskidearekin joan da hilobira egunkari horren euskal orria».

«Euskal festa eta bertsolarien txapelketa guzitan agertzen zen aholkulari, bultzale, ohoragarri eta epaile. Oso ezaguna zen eta ez zen herririk, "Larreko" zenaren aipamen batzu gabe itzuliko ginenik. Askok egin zuen orduan, ordu eta egun asko galdu zuen Nafarroako bideetan; zor handia dio inun jaso ez den ekintza horretan, gure herriak».

«Euskaltzaindiaren Jagon Sailari dagokion eginkizuna aipatu nahi nuen Aingeruren ikerlanen aurretik, ez bait zaio inoiz behar den garrantzirik eman. Guk sartzerik ez genuen ateak jotzen zituen berak, adinaz eta nortasunez itzala bait zuen agintarien aurrean. Eta asmoan zuena esan egiten zien. Nik uste beldur ziotela, batzutan, agintariek».

J. M. Satrustegi jaunak, ondotik azaltzen ditu bere idazlanetarik garrantzitsuenak.

Baina, hilberriko aldi hartan, ni neu ere arduratu nintzen bere lanen berri ematen. Lan aski luze bat eskaini bai nion *Egan* aldizkariaren, 1984ko 1-2. zeb.,

urtarril-apirilekoan, «Aingeru Irigaray joan zaigu» izenburupean. Aldizkari hortan laga zuen hutsunea nabaria izan zen. *Egan* Euskal literaturaz euskara hutsuan hasi zenetik A. Arrue, A. Irigaray eta L. Mitxelena ziren zuzendaritza arduradun, eta Aingeruren heriotzako une haretan, Mitxelena Salamancako Unibertsitatean katedradun zenez, urrun ez ezik, bakarrik gelditu zen eta zuzendaritzarako kideetasuna eskatu zidan. Beraz, Aingeru Irigaray zenaren lekua hartzera nindoanez, arrazoizko iruditu zitzaidan aipatu dudan artikulu hori idaztea. Orain, bertan oinarrituko naiz, gehigarriak erantsiz, Aingeru Irigaray zenaren lanetaz nire iritziak azaltzeko.

Aingeru, hogeitahamar urteren buruan *Egan* aldizkariaren zuzendaritzako izatez gainera, etenik gabeko kolaboratzaile zintzoa izan zenaz ezta gauza erraza hitz egokiak asmatzea. Aldizkari horrek hainbeste zor dion gizonari esker on soilez ordaintzerik ez baita. Hala ere, lerro batzuren bidez, gizon euskaltzale eta langileari buruzko zenbait adierazpen agertzera beharturik nengoan.

Irigaraytarrak instituzio bat izan dira nafar euskaltzaleen artean. Pablo Fermín Irigaray Goizueta auriztarra zen lehena (1869-1949), Iruineko mediku ospetsua, Aingeruren aita. Euskal Idazleen artean «Larreko» izenordez ezagutzen zen. *Prosistas navarros* (1958) deritzan elebidun liburuan bilduak daude bere lanik garrantzitsuenak. *Buruxkak* liburuaren egilea zen J. Etxeparerekin batean, Larreko, medikuntza gaiak euskaraz idatzi zituenetariko guti horietakoa genuen. Beraz, Aingeruk, etxetik zuen maisu egokia, eta bere semeak ere bide hortatik hezitu zituen. Zoritzarrez, euskaldunon familiotan, ez da beti gertatzen etxea euskararen eskola. Baina Aingeruren kasoan bera izan da aitaren oinordeko, bai medikuntzan eta baita euskalaritzan ere. Bere lanak, euskaraz eta gazteleraz, liburuetan ez ezik aldizkari askotan sakabanaturik aurkituko ditugu. Eta, ez da tipia izan bere emaitza. «Apat-Etxebarne» izenordea maiz erabili zuen; baita ere, inoiz, «Irular» izenpetuz ere argitaratu zituen. Jon Bilbaoren *Eusko-Bibliografía*-n leku zabala hartzen dute bere lanak, IV. liburukiaren 418-419. orrialdeetan eta IX. liburukiko 580-581.etan.

Esan bezala, Bidasoako Beran jaioa zen. Bere medikuntza ikasketak Barcelona, París eta Friburgen osatu zituen. Bere bizitzan zehar, euskarak, bereziki Nafarroako euskarak, oso kezkatua zen. Min hori barnean zeraman estudiante garaian ere. Justo Garate bergararra eta Fernando Zuloaga eibartarra genituen horren lekuko, nortzuk behin baino gehiagotan aitortu zidaten Barcelonan elkarrekin ikasketak egiten zitzutelarik nola piztu zioten euskaraganako kezka, herri bakoitzak bere sustraietatik mundu orokorrera begira jarraitu beharrezkotzat. Hola ulertzen bai zuen bere eta guzcion kulturgintza.

Ingurukoengana euskaltzaletasuna zabaltzen arduratu zena, gaztetxo hasi bai zen euskaraz edo euskarari buruzko lanetan, bere ogibidezkoa bete ondorean, urterik urte hil arteraino jarraitzeko. Adibidez, 1932. urtean Eusko Ikaskuntzaren *RIEV* aldizkarian argitaratu zuen Ezkabarteko Udalean (bereziki, Ezkabarteko Zildozen) aurkituriko euskarazko agiria, 1773. urtekoa, eta berak zenbait oharrekin argitarazia. Handik laster ikusiko zuten argia Erronkarin bilduriko kanta *Anuario de Eusko-Folklore*-en (1933). Baina ordurako hasia zuen bere bizitzan


zehar burutuko zuen lanik interesgarrienetakoa, Nafarroako euskararen geografia historian zehar. Lehen lana, 1933an Nafarroako euskararen egoera aztertuz, Euskararen Adiskideak elkarteko memorian eta gero *RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos)* aldizkarian jarraituz, 1935ean.

Gerra aurreko garai hartan, *RIEV* eta *Anuario de Eusko-Folklore* kultur argitalpenez gainera, Donostiako *Argia*, *Argiaren egutegia* eta *Yakintza* aldizkarietan ere kolaboratu zuen. Gerraondoan ordea, politika hain gogoko ez zuen. A. Irigarayren pekatu nagusia bere euskaltzaletasuna zen frankismo-zaleentzat, eta Satrustegi jaunak ongi zioen bezala, «jauntxo zitelen bekaizkeriak azpiorra eginik» gizonak bere burua Iruñetik aldetzera behartua ikusi zuten. Berrogeigarren hamarkadaren hasera zen. Lehenik, noraezean bezala, Hondarribira jo zuen, Zuloaga kaleko 10.ean, Gabriela-enea deritzan etxean kokatuz. Nonbait, gertakari hori ez zuen hartu hain gaizki, zeren Xabier Aranburu adiskideari maiz aitortu zioenez, zoriontsu agertzen omen zen Joanes Etxeberri Sarakoa mediku izan zen herri hontan bere burua ikustea. Handik hiruzpalaur urtera Donostiara aldatu zen, baina bere go-goak beti jarraitu zuen Nafarroa eta Bidasoa inguru hontara begira.

Gerraondoan ordea, euskal kulturaz argitaratzen hasi ziren aldizkaririk gehienetan kolaboratu zuen: *Gure Herria*, *El Bidasoa*, *Euskera*, *Zeruko Argia*, *Herrria*, *Bol. R. S. V. de los Amigos del País*, *Diario de Navarra*, *Príncipe de Viana*, *RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos)*, *Fontes Linguae Vasconum* eta abar. Euskara hutsean anitz artikulua agertuz, baina bereziki *Egan*-en, 1953tik 1981era arte, bere sortzaileetarikoa ez ezik, zuzendaritzakoa ere bazenez. Lanik gehientsuenen zehaztasunak Jon Bilbaok jaso zituen eta *Eusko-Bibliographia*-n leku zabala hartzen dute. Ikus besterik ez dugu obra horren IV. liburukian 418-419. orrialdeak eta IX. liburukiko 580-581.etan.

Liburuak: *Primitiae Linguae Vasconum* (Hugo Schuchardt-ena alemanetik gaztelerara itzulia) 1947; *Cuentos populares vascos (Euskalerriko ipuñiak, J. M. Barandiaranen folklore bilketetakoetan oinarriturik zabalkundez emana)*, 1957an; *Prosistas navarros* (Larreko eta Manezaundiren lan hautatuak), 1958; *Geografía histórica de la Lengua Vasca* (elkar lanean, 1960); *Poesías populares de los vascos* (bi liburukitan, F. Michelen lanetatik itzuliak), 1962; «Esbozo bibliográfico de Literatura éuskara profana» (*Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratu zuenaren separata) 1965; *Noticias y viejos textos de la «Lingua Navarrorum»*, 1971; eta *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, 1974.

Aipatzen dudana *Noticias y viejos textos de la «Lingua Navarrorum»* deritzan hortan Bidasoa inguruko zenbait ikerlan eman zituen, adibidez: «La Botánica vasca de Lacoizqueta», «Corsarios y balleneros. Pellot» (Hendaiako Etienne Pellot zenaren ekintzetan oinarrituriko lana, ikus liburua 139-151. orrialdeetan), «Fiestas de Mayas», «Yoyak del Baztán» eta abar. Behar bada, Hondarribiko egotaldiarekin ikustekorik bazuten. Gainera, *El Bidasoa* aldizkarian ere kolaboratu zuen: «Un partido internacional en Irún», 1957an eta «Ihauteri solas», 1959an. Horrez gainera, 1969ko ekainaren 28an, irakaskintzarako Irungo Udalak antolatu zuen sariketan, «Gayarre kantari» zeritzon hizlauruko bere lana saritua izan zen.



Bere azken urteetan eri zen eta 1983ko azaroaren 28an Donostian aurkitu zuen herioak eta egun berean eroan zuten Iruinera. *Oroit hiltzeaz, zuhur baduzu*, hala irakurtzen denez Irigaraytarrek Nafarroaren hiriburuko hilerrian iragarrita duten epitafioan, eta han behar zuen Aingeruren gorpuak pausatu.

Esan bezala, orotarik idatzi zuen bai euskaraz eta baita gazteleraz ere, iker lanez, bilketaz, kritikaz, sorketaz, itzulpenez eta zabalkundez. Arestian aipaturiko aldizkarietaz gainera gogoangarriak dira *Príncipe de Viana*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Bol. de la R. S. V. de los Amigos del País* eta beste zenbaitzutan argitarata eman zituen lan luze bezain sakonak.

Lan tipi sakabanatuak ugari utzi dizkigu. Horietako asko, euskaraz zein gazteleraz. Baina gure barnera begira egin zuen bestelako lan jakingarririk aski. Esate baterako, bera izan zen beste inor baino lehen Gabriel Aresti zenaren poesiagintza berriaren balioaz ohartu zena *Egan* aldizkarietan 1958tik goretsiz hasita eta gazteleraz *El Bidasoa* aldizkariaren 1960ko ale batean idatzi zuen beste harekin, «Un gran poeta desconocido (Gabriel Aresti)».

Bestalde, lehendik aldizkariaten zirenak bilduz eta hobetuz, *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak* (1958) deritzan liburuan zein egoki eman zituen, Endrike Zubiri «Madezaundi» eta Pablo Fermin Irigaray «Larreko» bere aita zenaren lanik aipagarrien berrazalpena.

Etorkizunari begira, Aingeruren beste kezka bat zen, Irungo sariketa hartan ondo erakutsi zuen bezala, haur eta gaztetxoentzako irakurgaiak, euskarari nolabait lagundu ahal izateko. Xalbador Garmendiaren laguntzaz prestatu zuen J. M. Barandiaran ospetsuaren bildumetatik, elebidun: *Cuentos populares vascos - Euskalerriko ipuiñak* (1957). Horrez gainera, baita ere bere kabuz euskaraz ikasten laguntzeko metodo antzerako liburu bat, *Jostatuz, mintzaira ikas* (1966) zeritzana. Eta, aipatu dudana bezala, F. Michel-en liburutik, antzerako asmoz, euskal kantak berezi zituen, frantsezetik gaztelerara itzuliaz, bi liburukitan *Poesías populares de los vascos* (1962) izenburuz argitara emateko.

Bere euskaltzaletasunaren lekuko, J. M. Satrustegik ongi erakutsi zigunez: «Gerra aurreko giroa bizi izan zuen gizona zen... Herriaren aldeko euskaltzale bezala bere sinistek eta jarrerak zituen eta ikuspegi horretatik juzgatu zituen arazoak...» (*Egin*, 1983 - 11 - 30). Egia esan, *Gure Herria*-n ere honako hauek azaldu zituen: «Literatur euskararen inguruan» zeritzan idazkian bere aburuak era honetara agertuz: «Euskara izkiriatuaren batasuna, ezin da beraz erdietsi Euskaltzaindiaren agindu edo gramatika baten medioz, horiek denak ametsak direlako; bainan izkiriatazailleek asko egin dezaketela nago, euskara idatziaren desberdintasunak ttipitzeko; gero eta geiago edatuz izkiributan erdiko-eskuara edo erdiko molde bezalako bat...» (*Gure Herria*, 1959ko urriko zeb., 233-235. orr.).

Aburu horietan tinko zegoenari ez zen erraza besterik konpreniaraztea, handik bederatzi urtera, ikastolen abiadurak eta literaturgintzarenak idazkera bateratzeko bideak errazten zituelako, idazle, andereño eta maisuak batasunaren arauen eske zeudela irakazkintzarako testuek hala eskatzen zutelako. Gerorako etorri ziren irratiak eta beranduago sartu zen euskara telebistan. Euskara idatzia-

ren batasunerako Arantzazutik (1968) markatu zen bideari esker erraztu zaizkio Euskal Herrian orokortasunerako erabilera. Bestalde, esan beharrean nago, Euskal Herria ez dela lehena: auto-bidez eta era askotariko komunika bidez, toki guzietako euskaldunok elkarrengandik hurbilago edo harreman estuagoetan gaudeenez, medioen bultzadaz eta harremanen maiztasunez. Eta, euskararentzat norabide batzuk markatu ezik, gure atzerapena askozaz handiago izango zen autonomia bidean jartzeaz.

Berak ordea, etxetikako euskara zuen maite. Hor lotzen zen gizona. Besteok ere etxetikakoa dugu maiteen, baina etxeetan aspalditik sartu zen irratia eta las-ter sartuko zen telebista. Eta, guk, horiek ezin ba egin etxe bakoitzaren edo herri euskalki mota bakoitzaren gisara erabili ahal izateko. Naturaltasunak berezko arriskuak izanarren, guregan zetorren pisu guzi horri eutsi beharrean geunden eta batasuneruntz jo beharra ikusten genune. Berez ez zela erdiko biderik egingo eta bultzatu beharrean ginela. Hala ere, Aingeruk ez zuen horrela ikusten. Bere iritziak agertzen zizkigun, baina gehienok ez gentozen ados.

Hori ordea, ezta batera harritzekoa, askoz geroago erabiliak dira era hortako zalantzak. Eusko Jaurlearitzan bertan ere. Horrek ekarri zigun euskaragintzako atzerapena; baina azkenerako, ez dago beste biderik euskara baturako arauak hautatzea baizik. Plangintza eta metodologiak nahitaez eskatzen dituenak dira eta lehendik ere inor ez da ibili kapritxo.

Hala ere, bakoitzaren ikuspegiak errespetagarri dira. Ekintza guzietako auzi-mauziak dira horiek, edozein ekintzak berez dakartzanak, eta diferentzia tipi horiek garrantzi guti dute gure herrigintzan eta kulturagintzan. Horregatik, Aingerurena bezalako lanak, goresgarriak dira; batez ere bere eritziak garaiz adiarazi bai zituen. 1968an Arantzazun zen aukeraren garai egokia. Han, orduan, bertan ginen euskaltzain guziok aho batez onartu genuen Koldo Mitxelena markatu zigun batasun bidea.

Baina eritzi horiek gora behera, Aingeru Iriagaray zenak, iker lanetan mai-zenik gazteleraz idatziarren, lan bikainak burutu zituen. Beste zenbait lanen artean, esan bezala, H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* alemanetik itzuliaz *Tesis y Estudios Salmantinos. - III*, sailean 1947an argitaratu zuena, eta horrez gainera, aldizkarietan sakabanaturik zituen bere zenbait lanetan oinarriturik, burutu zuen aipatu dudana *Noticias y viejos textos de la «Lingua Navarrorum»* (1971).

Hizkuntzaren ageri zaharrak, Erdi Aroko izenak, eta antzerako gaiak ere kezkatzen zuten, hortaz aurkimenak eta ikerketak egina zen.

Gainera, Aingeru Irigarayk literatur profanoa maite zuen, J. M. Barandiaran eta F. Michel-engandik jaso eta prestatu zituen lan haietan argi nabari denez. Bere eritzi, eta arrazoi handiz gainera, euskal literaturan askok uste baino lan gehiago zen profano hortarik eta gehiago baliatu behar gindezkela zioen. Horrek ez zuen ukatzen Urtegako Beriainen mezatarako liburuaren azterketa egitea, Endrike Zubiri «Manezaundi»ren literatur lanak gogozkoago bazituen ere. Bide hartatik aritzean, gure artean behar hadina zabaldu ez den lan bat burutu zuen,



behar bada liburuxka berezi bat osatzea merezi duena: «Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana (del siglo XV al XX)», 1958. urtean *Príncipe de Viana* aldizkariaren 98 eta 99 zenbakietan argitaratua. Hortaz, lehenagotik ere zenbait gauza labur argitaratuak zituen. Eta, urte bete lehenago, «Modismos del idioma vasco», aldizkari berean. «Euskal Literatura mundutarra» izenpean, lan horiei buruzko erreseña labur bat egin nion *La Gran Enciclopedia Vasca* (Bilbo, 1966) aldizkariaren lehen urteko 793-794. orrialdeetan.

«Esbozo» horren sarrerez estilistika aldetik merezimenduak dituzten egileen aipamen berezia egiteaz gainera, gaian sartzen zen: hasteko Oinaz eta Ganboar leinuen borroketakoak aipatuko zituen, Zuberoako pastoral eta xaribariak gero. Hereille-k horien baliapenez eman zituen aburu eta berriak ere jasoaz, baina bereziki pastoralaren plastika alderdiaren egitura zertan zen agerraraziz. Eta gairik profanoenak hautatzeaz, Ihauteriak ere bere lekua zute xaribarieri loturik eta hain erraz aurkitzen ez diren literatur materialen berri eman zigun, agerbidezko lekukotasun hautatuak agertuz.

Bernat Etxeparegandik zenbait zati hautatuz, zuzen transkribatu zituen, argitasunerako oharrak erantsiz. Ondotik datoz beste zenbait autore: Oihenart, Joanes Etxeberri Sarakoa, Joan Antonio Mogel eta Iztueta, adibidez. Eta horiekin bateratsu edo geroztik, XIX. mendean idatzi zutenena. Oso labur egiten ditu aipamen soilak: Pascual Iturriaga, Otsobi, Artxu, Ulibarri eta abar. Azkenik, Azkue eta Barandiaranen herri literatura bildumetako berri emanaz.

Eibartarroi ere nekez ahaztuko zaigu 1959ko azaroaren 7an eskaini zigun hitzaldi eder hura: «Mogel eta literatur-euskara» zeritzana (ikus *Euskera*, V, 1960, 110-120. orrialdeetan argitaratua).

Guzia biltzea gauza erraza ez denez, besteak beste, XVIII. mendeko Xabier M. Munibe Peñafiorida kondea eta P. Barrutiaren antzerkietako zenbait pasarte edo zatiz ahaztu zen nonbait. Baita ere Donostian joan zen mendearen azkenaldera piztu zen antzerki mugimenduaz eta beren lanez. Horien ordeztu, Bizkaiko herri antzerki soil bat aurkeztu zigun, Bonifazio Latxa-Agirreren *Todos erribatekos* zeritzan irri-antzerkia. Bere saioa horrekin bukatuz.

Gabriel Arestiren poesia, esan bezala, beste inork baino lehen goretzi zuen, 1953tik *Egan* literatur aldizkarian. Gainera, aldizkari horretan, bere ardurapean agertzen zuen «Naas-maas» sailak erakusten digu literatur profanoarekiko joera, aburuetan eta berriak ematean. Aldi berean, baita ere, inolazko metodo edo erregela hertsiri loturarik gabe literatura libreki lantzeaz.

Min duenak, hara mihia, esan ohi da. Eta, Irigaray, nafarra izatez ez da bate-re harritzekoa bertako euskarak historian zehar ezagutu dituen hainbeste ankerkeri eta galeregatik min hartzea. Bere Nafarroako euskarak asko kezkatzen bai zuen.

Izan ere, Irigarayk, Nafarroaren euskalduntasun jatorra frogatu nahi zuen gure belaunaldiko nafar guzien aurrean, noizbait errege Naxerako Santxok izendatu zuen «*Lingua Navarrorum*» defendatu nahi zuen Nafarroa horren alde iratzartuz edo kezkatuz. Horregatik, gure mediku honek, inoiz loari eta hurrengo

ogibidezko laneri orduak kenduz, aski gazterik hasi zuen Nafarroako erresuman euskararen diakronia aztertzeari. Lehenik, 1933an, «Noticia histórica y estado actual del euskara en Navarra» deritzan lana aurkeztuz Iruñeko *Memorial de la Sociedad Euskararen Adiskideak*, gerragatik suntsituko zen aldizkari hartan. Hura, A. Irigarayren lanik hoberenetakoaren hasiera baizik ez zen. Era berean jarraitu zuen, «Documentos para la Geografía lingüística de Navarra», Eusko Ikaskuntzako *RIEV* aldizkarian 1935ean.

Geroztik, gure gizona, Nafarroako euskararen lekukotasunak zehazte bidez, egoera lotsagarriak salatuko zituen seme leial horietakoa zen. Halakoak izango ziren Eustaltzaindiaren *Euskera* agerkariak, 1953tik 1981era arte azalduko zituen lanak. 1956. urtean bere abiadura berria hartu zuelarik, «Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935» eta lau urte geroago «Nuevos testimonios de la lengua vascónica en Navarra», *Príncipe de Viana* aldizkarian. Lan guziotan beti zerbait gehitzen zuen historian zehar gertatuarena edo nahiz egoeraren berri ematean.

Bilketa eta azterketa guziokin, 1974. urtean liburu bat ere argitaratu zuen, maiz erabiltzen zuen A. Apat-Echebarne izenordepean, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra* (Iruñea, 1974). Lan horietan ohi zuenez, maparik ere ez zen falta mendeak zehar zer nolako atzeratze eta galerak izan dituen adieraziz. Gainera, aipatzen dudan oraingo honetan, herriz-herrizko zerrenda eta aurkibidez aberastuz eta bibliografia osatu bat eskainiz.

Hala ere, ez nintzake ausartuko esatera, nafar euskararen historia guzia zehatz bildu zuenik. Zeren, era hortako lanak inoiz ez bai dira bukatzen. Alde batetik, lan beraren jarraipiderako adierazpenak ber berak eskaintzen zizkigun. Somatzen ditugun hutsuneen betegarri izan zitzaten. Adibidez, L. P. Peña Santiagok eta biok «Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto» (*Munibe*, 1966) argitaratzea burutu genuenean, *Diario de Navarra*-n gorazarrezko artikulua bat eskaini zigun, bertako euskararen aipamenak eginaz, baina gero bere liburu-ra jasotzea ahaztu zitzaien nonbait. Dena dela, gure Urraulgaineko azterketa harek L. L. Bonaparte printzearen lanari zenbait ohar eta gehigarri egiteko aukera eman zidan eta «Sobre el euskara de Urraul Alto y el venerable Esteban de Andoain» publikatu nuen (ikus *Euskera*, XXVI, 1981, 59-65. orr.).


Lan berari jarraituz, oraindik dato osatuagoz beste lan bat burutzea zen bere gogoan. Horregatik, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian jarraituko zuen lehen-goaren gehigarritz: «Tafalla era vascófona», 1977an argitaratuz eta «El Hospital Civil de Navarra y el euskara en el siglo XVII», 1982.ean.

A. Irigarayrentzat Nafarroa zen gure mina. Euskal Herriaren sustrai zen Nafarroako erresuma zaharra aurkitzen zuen eri. Medikua izakiz eta gizonen osasuna bezala begiratzen zekien euskararena ere. Bereziki Nafarroan aspalditik begi zoliz gainberaka ikusten zuen gaitz hori eta, 1933an hasi zuen lana, bertako euskararen egoera aztergai, aurrerantzean etenik gabe jarraituko zuen bere bizitza guzian zehar, baina ordainez, etzuen jasoko etsipena baizik.

Baita ere, esan beharrezkoa iruditzen zait, Nafarroara begira Euskadi hitzak ere izutzen zuela. Xabier Kintana eta Alfonso Irigoyenen eskariz, 1979ko urta-

# Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra

*A. APAT-ECHEBARNE*



rrilaren 26an Euskaltzaindiak Baionan egin zuen batzarrean, gure erakunde honek Euskal Herri hitza ez baztertzearen eskarizko erabakia hartu zuen. Hala ere, gure A. Irigarayrentzat hori ere ez zen aski; bere gogoz, Diputazio eta Udal guzietara zabaldu behar zen Euskal Herria erabiltzearen aldeko eskari deia. Antzerako jarrera agertu zuen Eusko Ikaskuntzako bileretan ere. Irigaray beti zegoen hortaz, eta erabaki hura birresteko eskariak behin baino gehiagotan egin zituen. Bere ustez, oso kaltegarria zen Euzkadi zein Euskadi erabilera, batez ere Nafarroako erresuman. Bera ohartzen ez zena nonbait, politikoeek aski zoro erabiltzen dituztela bai historia eta baita terminoen tratamenduak eta horien baitan beti izan direla seriotasunik gabeko aldakortasunak.

1953. urtean *Egan* aldizkaria euskara hutsean hasi zeneko «Asmo berri» atarikoaren izenpetzaile genuen beste bi zuzendaritzakoekin batean: A. Arrue eta L. Mitxelena. Hurrengo urtean (1954) eman zion hasiera «Naas-maas» deitu sailari. Ildo beretik harraituz irauaraziko zuen lana, 1977.era arte.

Baina bere ardurapeko sail hori ez zen *Egan*-en egin zuen lan bakarra. Bestelako literatura saiorik ere burutu zuen. «Esbozo» zelako haren sustraiak ere, euskara hutsean gainera, *Egan* aldizkariko orrialdeak zehar aurkitu genezazke. Umore aldetik, Latxa-Agirrereren *Todos erribatekoz* laket bazitzaion ere, teknika, zientzia eta sorketazko literatur lanak biziki maite zituen. Hara nola aritu zen saio batean *Erle gobernatzailleen gidari* liburuaz, Jean Etxepare eta Huarteko Joanesen medikuntzako idazlanak eta abar. Beste zenbait hitzaldi eta saio argitaratu zituen gure literaturako autoreak goretsez edo aztertuz: Axular, Mogel, Iparragirre, Lizarraga Elkanokoa, eta abar. Era berean, ez zen ahaztuko Antoine d'Abbadie bezalako eragileekin ere. Une bakoitzean bere eritziak zintzo agertuz.

Hainbeste lan egin zuen gizonari oso ongi jarri zioten bere semeek, heriotzako iragarpena hautatzean, Etxahun Iruriren esaldia: «... ez bazintüdan hain maite üken oi ama Üskal-Herria».

Bai; maitasunaren eraginez, gogo kementsua nabari.

**LABURPENA**

Aingeru Irigaray medikuaren bizitzaren eta obraren deskripzio laburra, bere mendeurrenaren ospakizuna dela-eta.

**RÉSUMÉ**

Brève notice de la vie et oeuvre du docteur Aingeru Irigaray, à l'occasion de la célébration du centenaire.

**SUMMARY**

A short sketch of the life and work of Doctor Aingeru Irigaray on his centenary.

**RESUMEN**

Breve semblanza de la vida y obra del médico Aingeru Irigaray, con motivo de la celebración de su centenario.